ASMOZ TA JAKITEZ

212
EKAINA JUNIO JUIN 2010

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

## Txomin Peillen, 2009ko Manuel Lekuona Saria




2009ko Manuel Lekuona Saria jaso zuen Baionan maiatzaren 22an Txomin Peillen idazle eta ikerlari zuberotarrak bere obra osoari interes berezia egotzita, maila goreneko intelektual eta humanistaren lanaren errekonozimendu gisa. Lagun, senide, idazle zein Eusko Ikaskuntzako eta Euskaltzaindiko ordezkarien babesean Baionako herriko etxeko aretoa bete egin zen Peilleni gorazarre egiteko. Hunkituta hartu zuen Remigio Mendibururen brontzezko eskultura Eusko Ikaskuntzako buruzagitzako José Luis de la Cuestaren eskutik.

“Hitz gutiz errango dut bakarrik zein ikerlari zorrotz eta nasaia den batetik, idazle zinez emankor eta polifazetikoa bestetik, denetarik egiten baitu, eta ongi egin. Azpimarratuko ditut bereziki horren eleberriak hainbat literatura sari merezitu diotenak, hainbat nekezia kosta ere argitaratzeko. Olerkian ere liburu andana bat agertu du, bereziki azken urte hauetan, eta saioan are gehiago. Gainera, zenbat ikerlan ez otu du publikatu hainbat aldizkaritan? Beraz ez da egun ustekabean hemen gertatzen, Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona sari famatuaz ohoratua”, azpimarratu zuen Jean-Louis Davant euskal idazleak ekitaldian.

Peillenek berak, bidelagun izan dituenei eskerrak eman zizkien ekitaldian, bereziki, sariari izena ematen dion Manuel Lekuonari: “Duela 22 urte hil zitzaigun oiartzuar euskaltzale handia; ikerlaria genuen eta ahozko literaturaren, herriko kantuen, koplen, bertsuen eta pastoralen balioa oroitarazi zituen, bere *Literatura oral euskérica* liburuan bai eta artikulu anitzetan hamabi liburutan bildu zirenak. Haur kantuak idatzi zituen baita *Ehun dukat* izeneko komedia eta *Zigor* operaren libreta”. Eta bere “zorrak aitortuz”, euskaldun eta euskal idazle egin zutenak ohoratu zituen Peillenek, euskaldun egin zuen ama eta Zuberoako senideak, zein Andima Ibiñagabeitia elantxobetarra eta Gotzon Egaña donostiarra. Eta aipamen berezia izan zuen Luis Mitxelena, Jon Mirande eta Gabriel Arestirentzat ere, izan ere “euskaraz literatura idaztera eraman ninduten hemeretzi liburu agerrarazi arte”, azaldu zuen Peillenek.

## Una Asamblea General participativa

### Eusko Ikaskuntzako bazkideek argi eta garbi eztabaidatu zuten erakundearen etorkizunaz, proiektuak berdefinitze eta egokitze ekonomikoen testuinguru batean




El 28 de mayo se celebró en el Palacio Miramar de Donostia la Asamblea General anual de Eusko Ikaskuntza. Conforme a lo establecido en el orden del día, el Secretario de la entidad, Gorka Landaburu, presentó la Memoria de actividades del 2009, cuyo catálogo-resumen se entregó a los asistentes. Por su parte, la subdirectora Arrate Arín, en *ausencia del Tesorero*, presentó el Balance y Cuenta de Resultados 2009. Ambos informes fueron aprobados, así como la distribución de resultados y la empresa auditora para los próximos ejercicios.

En su informe, el Presidente José María Muñoa recapituló las principales labores desplegadas en su primer año de mandato, así como los cambios de titularidad realizados en el Comité Ejecutivo y en el equipo rector. En su análisis de la parcela económica señaló que, pese a la situación general del país y la concreta que atraviesan tantas empresas e instituciones, “EI-SEV no tiene motivos para quejarse demasiado. Hemos de afrontar la situación en positivo y encarar el futuro con realismo pero también con ambición”.

Se detuvo el Presidente en los objetivos de la nueva etapa, entre los que destacó el aumento de la participación de la masa social, el desarrollo de las Secciones Científicas y, especialmente, en lo que denominó “dos programas de tracción”: Auñamendi Eusko Entziklopedia (AEE) y “Convivencia”. Con el objetivo de convertir AEE en una gran enciclopedia actualizada, plurilingüe y *on line*, consideró necesario dotar al programa de una estructura reforzada, dinámica y profesional. Por otro lado, partiendo del diagnóstico de que la sociedad vasca “posee un importante déficit en términos de convivencia”, Muñoa apostó por abrir un programa de estudio al respecto que implique “al máximo número de socios y socias”.

En el turno de ruegos y preguntas, diversos asambleístas plantearon preguntas y expresaron opiniones. El futuro de la Fundación José Miguel de Barandiarán y de los Programas Emblemáticos, cuestiones de participación y de género o sobre la financiación de proyectos, fueron objeto de debate durante la Asamblea que se prolongó durante más de dos horas y media.

## Erakunde Bizitza

### Lehendakaritzan

Datorren uztailaren 12an, Patxi López Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Batzorde Eragilearen ordezkariak hartuko ditu, horien buru José María Muñoa Lehendakaria izango delarik. Eusko Ikaskuntzaren gaurko jarduera programa nagusiak eta etorkizuneko proiektuak aurkeztuko zaizkio EAEko lehenengo agintariari, lankidetza lerroak indartzeko gogoaren berri ematearekin batera, eta era berean azalduko zaio Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko kultura eta ikerketa proiektuetan Eusko Ikaskuntzak bere baliabideez laguntzeko duen gogoa.

### Televisión sin Fronteras

El 15 de mayo finalizó la campaña para elevar a trámite parlamentario la proposición de Ley “Televisión sin Fronteras” basada en la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias al objeto de que las emisiones de TV3 puedan seguir viéndose en la Comunidad Autónoma Valenciana, y en Navarra las de Euskal Telebista (ETB). El número total de firmas recogidas ha sido de 596.172, de las cuales 55.111 provienen de Euskal Herria peninsular mediante la participación impulsada por Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia y Kontseilua. Esto significa que se ha superado el medio millón de firmas válidas de ciudadanos residentes en el Estado español mayores de 18 años necesarias para que la Iniciativa Legislativa Popular prospere. El 24 de junio se procederá a la entrega oficial de las firmas que deberán ser validadas por la oficina del censo.

## Jakiunde

### Esclerosis múltiple

Con motivo del Día Internacional de la esclerosis múltiple, el 20 de mayo el doctor Jorge Oksenberg dio una conferencia en Bilbao dentro del programa Zientzia Foroa. En su ponencia, titulada ‘Medicina Genómica: Enseñanzas de la investigación en esclerosis múltiple’, Jorge Oksenberg hizo resumen de la evolución de los conocimientos sobre la enfermedad, y puso de relieve cómo la genética puede ayudar a explicar el proceso de destrucción del sistema nervioso central.

### Curso de Verano

Dentro de los Cursos de Verano de la UPV/EHU en Donostia, el 12 de julio se va a celebrar un Seminario, organizado por Jakiunde, sobre *Sistemas de Evaluación de la Investigación en Ciencias Sociales y Humanidades: Reflexiones y Referencias*. Bajo la dirección de Jesús M. Ugalde y Gurutz Jáuregui, el objetivo del Seminario es analizar cuáles pueden ser los indicadores más adecuados para establecer un consenso mínimo en el análisis y evaluación de las Ciencias Sociales y Humanidades, como modo de contribuir a recuperar el retraso de estas áreas respecto a las científicas y tecnológicas.

Más información:

http://www.jakiunde.org/es/m-eventos.htm

## Gazteria

### Datorkigunea, 2010-2011




El 14 de mayo el Comité Científico de ‘Datorkigunea’, compuesto por la historiadora María Jesús Cava, el economista Alfonso Dubois y el sociólogo Asier Etxenike, fijó los temas de trabajo para el curso 2010-2011. El primer tema que se prolongará de setiembre de 2010 a enero de 2011, analizará la participación actual de los jóvenes en nuestra sociedad y los mecanismos con que cuentan, intentando señalar opciones de participación innovadoras. El segundo tema, “Jóvenes, futuro desde el presente”, tratará las principales problemáticas de los jóvenes en la sociedad actual, su análisis a partir de datos económicos, sociales y de funcionamiento, y se interrogará sobre hacia donde quiere dirigirse la juventud vasca y qué se puede hacer en este sentido. El equipo de trabajo lo compondrán cerca de cuarenta jóvenes previamente seleccionados, coordinados por Ei Gazte!, Área de Juventud de Eusko Ikaskuntza.

Más información:

http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/datorkigunea/

## Euskomedia Fundazioa

### Casi 6.000 tesis doctorales

eDTB
Euskal Doktorego Tesien Bilduma
Repositorio de Tesis Doctorales

Euskomedia Fundazioa ha puesto en marcha un repositorio con los datos referentes a 5.979 tesis doctorales sobre temas vascos leídas en Universidades de cualquier lugar del mundo entre 1993 y 2009. En el momento actual EDTB recoge fichas catalográficas de dichas tesis, aunque el diseño del sistema permite la incorporación de los documentos a texto completo en formato PDF o similar.

Enmarcada dentro de la corriente internacional “Open Archives”, *EDTB: Euskal Doktorego Tesien Bilduma - Repositorio de Tesis Doctorales Vascas* quiere difundir las investigaciones universitarias, ofrecer a sus autores una herramienta que incremente el acceso y la visibilidad de su trabajo, impulsar la edición electrónica y las bibliotecas digitales, e incentivar la creación y el uso de la producción científica propia.

Más información:

http://edtb.euskomedia.org

### Web 2.0, murgiltzeko prest

Teknologia berriak ezagutzea, modu atsegin eta entretenigarrian, alegia, ordenagailuak eskaintzen dituen aukera anitzak baliatuz. Hori da Euskomedia Fundazioak abian jarri duen web orriaren bidez 12 eta 16 urte arteko ikasleekin lortu nahi duena. Hala, gune honek kalitatezko edukiak eskaintzen ditu, web 2.0 baliabideek eskaintzen dituzten aukeren berri ematen du http://klk20.euskomedia.org helbidean. Gunearen abiapuntua eduki ezberdinen arteko nabigazio eta interaktibitatea da. Honela, ikasleak gai honen inguruan gehien interesatzen zaion informazioan zehar nabigatzeko aukera edukiko du, atal guztiak elkarren artean erlazionatuta baitaude. Ikasleak hain gaurkotasunezko diren gaietan murgilduko dira, aldi berean beraientzako oso erabilgarri izango diren jakintza eta kontzeptuak eskuratuz.



## Bekak / Bourses

### Agustin Zumalabe Beka




*Oroimen iheskorrak: Gerra zibileko sufrimenduaren inguruko hausnarketak, euskaraz idatzitako testigantzen ikerketaren bidez lana egingo dute* lana egingo dute Pio Perez Aldasoro eta Ignacio Ayestaran Urizek jaso berri duten Zumalabe bekaren bidez. Gerra Zibileko bizipenak ikertuko dituzte proiektu honen bidez, izaera kualitatiboaz subjektuaren ahotsak aztertu nahian. Horretarako, euskaraz idatzitako testigantza eta autobiografiak baliatuko dituzte. Izan ere, liburu eta testigantza hauetan garbi azaltzen dira gerrak eragindako bizipen traumatikoak eta nahigabeak. Narrazioen ikerketen bidez garaiko testuingurua ere ikertuko dute egileek, horregatik, gerra bizi izandakoen kosmobisioa eta oroimenari buruzko informazioa emateaz gain, Gerra Zibileko lanei beste ikuspegi bat lortu dezakete.

### Angel de Apraiz Beka




Hiztunak egoera desberdinetan zein hizkera erabiltzen dituen aztertuko du Oihana Lujanbio Begiristain goizuetarrak jaso berri duen Angel de Apraiz bekari esker. *Hizkerak adierazten duena. Goizuetako adibidea* lanean, zehazki, hiztunak egoera ezberdinetan, hizkera komunitatean zein bertatik kanpo beste hizkera komunitateekin hitz egitean nola egiten duen aztertuko du Lujanbiok Nafarroako herri euskaldun bateko, Goizuetako, hizkerak aztertuz. Proiektu honen bidez aztertuko den hizkuntza aldakortasuna, orain arte Euskal Herrian oso gutxi landu da. Hain justu, euskara batua 1968an sortu zen eta prozesu horren une desberdinak ezagutu dituzten belaunaldiak bizirik daude, baina bakoitzaren hizkerari prozesuak nola eragin dion ez du oraindik inork ikertu.

## Programa Enblematikoak

### BAI: puesta al día



El Programa BAI (Berezko Aurrerapen Iraunkorra - Desarrollo Sostenible y Duradero) revisará y actualizará el análisis y el Plan de Acciones realizados hace dos años con el objetivo de reinterpretar dicho informe contrastándolo con la situación actual y evaluar el nivel de cumplimiento de las acciones propuestas. Para ello BAI volverá a convocar al grupo de personas (unas 200) que participó en la primera reflexión, y contará con nuevas incorporaciones. El análisis resultante supondrá una aportación de máxima actualidad para la sociedad civil vasca y se plasmará en el quinto informe de progreso BAI. Además, se generará una publicación divulgativa que trasladará las principales conclusiones del informe a la sociedad civil a través de los medios de comunicación.

### Mugaz Gaindi



Euskal Herria Mugaz Gaindi es un seminario internacional que reúne a investigadores de temas relacionados con la proyección vasca en el mundo. El seminario posee dos modalidades: una presencial y otra virtual. Desde su primera edición, en 2004, se ha celebrado en distintos lugares: Euskal Herria, Uruguay, California... y este año será la localidad de Boise, en Idaho (Estados Unidos), la que lo acoja, mientras que la parte virtual se canalizará a través de la plataforma Euskosare.org. En esa misma web pueden consultarse las ponencias presentadas en anteriores ediciones así como su seguimiento informativo.

## Jardunaldiak, Jornadas, Journées

### Patrimonio Histórico-Artístico

Finalizaron las Jornadas Patrimonio Histórico-Artístico en Euskadi y Navarra que la Sección de Artes Plásticas y Monumentales organizó con carácter itinerante en Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Donostia-San Sebastián y en Pamplona. En el Museo de Navarra, los días 28 y 29 de mayo, se celebraron las últimas sesiones, centradas en el tema *Difusión del patrimonio y sostenibilidad. Turismo cultural* (1). Hubo dos ponencias a cargo de Fermín Villanueva Ferreras (Gobierno de Navarra) y Javier Yarza Urkiza (Gobierno Vasco). Dos mesas redondas abordaron la *Difusión del patrimonio y el Turismo cultural* en Navarra y en Vasconia en general.

### Gaurko Euskal Narratiba

Martxoa-maiatza bitartean, Hizkuntza eta Literatura Sailak hitzaldi sail bat programatu zuen gaurko euskal narratibari buruz, Gasteizko EHUko Letretako Fakultatean. Denbora laburrean euskarazko literaturaren panoraman beren lekua egin duten lau emakumek hitzaldi bana eman zuten, euskaraz denak: Irati Jiménez (2) (*Idaztea, nora jakin gabe*), Katixa Agirre (*Habitat naturalaren bila*), Uxue Alberdi (*Aulki-jokoa*) eta Ixiar Rozas (*Negutegia: ahotsa, hitza eta gorputzaren artean*). Aurreko urteetan bezala parte hartze aski nabarmena izan da.

### Cine vasco en Argentina

Durante el pasado mes de mayo, el socio Juan Miguel Gutiérrez, creador e investigador cinematográfico, desarrolló diversas actividades docentes y divulgativas en Argentina. Gracias al acuerdo que Eusko Ikaskuntza tiene con la Universidad Nacional de La Plata y con la ayuda de la Vicepresidencia por el Exterior de Eusko Ikaskuntza y la Cátedra Libre de Pensamiento Vasco de la Universidad Nacional de La Plata, del 10 al 14 de mayo en dicha Universidad impartió el curso de postgrado "Euskal Zinema/Cine Vasco, tradición y modernidad". El día 15, en la Euskal Etxea de La Plata, animó la proyección de una película vasca de dibujos animados (3). Del 17 al 19 en la Universidad Católica Argentina de Buenos Aires, Juan Miguel Gutiérrez impartió el seminario "El Cine Vasco de los orígenes a hoy".

### Exploradores en África

La Vicepresidencia por Álava programó en la sede de Vitoria-Gasteiz un ciclo de charlas sobre el tema "África y los exploradores vascos" (4) a cargo de tres reputados especialistas en la materia. El 13 de mayo, Federico Verástegui, Vicepresidente de Eusko Ikaskuntza y editor de los *Recuerdos marroquíes del Moro Vizcaíno*, trató sobre "La aventura africana de algunos vascos del XIX". El día 18 de mayo, Miguel Gutiérrez Garitazo, viajero, montañero, escritor y miembro de la Asociación Africanista Manuel Iradier, hizo repaso a la presencia vasca en Guinea Ecuatorial. Por último, el 20 de mayo la cuestión del Sahara centró la exposición de Ramón Mayrata, uno de los principales expertos en cultura saharaui que hay en España.

### Nafarroa Oinez

Harrera guztiz egokia izan zuten Eusko Ikaskuntzak Paz de Ziganda Ikastolan (Atarrabia) apirila-maiatza bitartean babesturiko hitzaldiak, Nafarroa Oinez 2010eko ekintzen barnean. Arratsaldean programatu ziren, eskola ordutegia amaitu eta berehala, era horretara ikastolako gurasoak bertaratzea faboratzen baitzen. Jende talde bereziki handia bildu zuen maiatzaren 20an Toti Martínez de Lezea idazleak emandako hitzaldiak, Santiago Bidea bere liburuetan gaia harturik.

Elkarlan hau Nafarroa Oinezen hurrengo ekitaldietan errepikatzeko asmoa dago.

### Historia de Plentzia

Las *III Jornadas de Historia Local de Plentzia: 1800-1900* abordarán la historia de Plentzia y la comarca de Uribe-Costa en el siglo XIX, dando así continuación a los contenidos de las dos Jornadas precedentes. Del 7 al 9 de julio se impartirán tres conferencias a cargo de Joseba Agirreazkuenaga (*Lehen gerra karlistaren abiapuntua Plentzian eta inguruan, 1833*), Itsaso Ibañez (*Evolución de la navegación astronómica en el s. XIX - Prácticas de observación*) y José María Beascoechea (*El primer "ensanche" de Plentzia: los paseos*). Las comunicaciones, a cargo de David Crestelo, Gonzalo Duo y Arantza Pareja, versarán sobre las mujeres y el Liberalismo, las escuelas de náutica y la sociodemografía de la villa respectivamente.

### Projectique: propositions

Sont ouvert les délais d'admission de propositions aux XVIèmes Journées de Projectique qui, organisées par la Section des Sciences Sociales et Economiques et ERALAN, auront lieu les 7 (Bidart) et 8 octobre (Donostia). Cette année leurs contenus seront centrés sur les innovations durables, la gestion et le développement des compétences.

Plus d'information: www.eusko-ikaskuntza.org/fr/cursosyjornadas

(1)


(2)


(3)


(4)



(5)

## Udalak

### Bayoneta, 5. zk.

Maiatzaren 11n, Tolosako Kultur Etxeko Aretoak *Bayoneta* (5), *Napoleonen aurcaco aldizcariaren* 5. alearen aurkezpena hartu zuen. Zehazten zerbitzu enpresak argitaratzen du aldizkari hau Tolosako Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren babesaz. Hiri horretako Udal Artxiboak Napoleonen gerrari buruz (1808-1813) gordetzen duen dokumentu ondarea ezagutaraztea da aldizkari honen helburua. Ale berriaren aurkezpen ekitaldi gisa, Jurgi Kintanak "Euskara ezkutatua: Tolosa 1810ean" izenburuko hitzaldia eman zuen. Xabier Alberdi Lonbidek egin zuen sarrera.

### Aiton-amonekin blagan

Hondarribiko Udalarekin sinaturiko hitzarmenaren esparruan, *Aiton-amonekin blagan* izenburuko proiektua gauzatu da azken hilabeteetan. Gipuzkoako herri horretako XX. mendearen lehen erdialdeko bizitzari buruzko lekukotasunak biltzea du helburu proiektu honek. Pío Pérez bazkide eta ikertzailearen zuzendaritzapean, 25 hondarribitar adinduni egindako 30 ordutik gorako elkarrizketen grabazioa bildu du lan honek, bertan haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenak gogora ekartzen dituztela. Maiatzaren 27an, proiektuan parte hartu dutenei eskerrak emateko ekitaldi publiko bat egin zen Hondarribian.

## XVII. Kongresua

### Berrikuntza

Gizarte berrikuntza berezkoa du gizajendeak, aldatzen eta egokitzen joateko bidea ematen du-eta. Hala ere, berrikuntzari, askotan, mugak ezartzen dizkiote elite boteredunek, ezagutza esparruen jabe diren aldetik ezabatu egiten dutelako gizarteko gainerako taldeen ahalmen berritzailea. Kongresuan adierazi duten bezala, berrikuntzaren oinarrietako bat balioak gogoan hartzea da, erreferentzia etiko horiek eragina dutelako banakoen eta taldeen jokabideetan zein erabakietan. Hortaz, egiturazko desberdintasunak nahiz sinbolikoak gainditzea ezinbestekoa da gizarte berrikuntzari bide emateko. Gizarte solidarioa legoke abiapuntuan, Berdintasun eta Justizia idealak lehenetsiko lituzkeena, esplotazio eta erruki politikak baztertzeko.




## Asmoz Fundazioa

### Cursos 2010-11

*Máster Oficial*

- Integración Política y Unión Económica en la Unión Europea (UPV/EHU)

*Títulos propios de Postgrado*

**Máster**

- Igualdad (UPV/EHU)
- Ingeniería Térmica en la Edificación (UPV/EHU)
- Derecho Ambiental (UPV/EHU)
- Derecho del Comercio Internacional (UPV/EHU y UNED)

**Especialista universitario**

- Asistencia a las Víctimas de Experiencias Traumáticas (UPV/EHU)
- Ordenación y Gestión del Territorio (UPV/EHU)
- Software Librea: Sistema, Sarea, Segurtasuna eta Web-aplikazioak (UPV/EHU)
- Hizkuntza Plangintza, HIZNET (UPV/EHU)
- Derechos Humanos (UPV/EHU)
- Desarrollo Sostenible. Gestor Agenda 21 local (UPV/EHU)
- Estudios Vascos: Ciencias Humanas, Sociales y Naturales (UPV/EHU y UNED)
- Patrimonio Cultural y Biodiversidad en los Bosques Manejados. Árboles Trasmochos: Tradición, Gestión y Conservación (UPV/EHU)
- Derecho del Comercio Internacional (UPV/EHU y UNED)

Más información sobre estos y otros programas: www.asmoz.org

ASMOZ TA JAKITEZ

212

EKAINA JUNIO JUIN 2010

## Argitalpenak



### Oihenart, 24

Oihenart 24k askotariko lanak biltzen ditu, gehienbat *Hizkuntza eta Literatura Sailaren ikerketarako laguntzen* esparruan buruturikoak. Hainbat interes lerro agertzen dituzte: euskal literatura, euskararen ikerketa hainbat ikuspegitik, hizkuntzen ukipena edo gure ondare dokumentalaren tratamendua testua prozesatzeko teknologia berrien bidez.



### Txomin Peillen

Le numéro 27 de la collection Manuel Lecuona Saria recueille l'autobiographie de Txomin Peillen Karrikaburu, dernier à avoir été récompensé par ce prix. En euskera et en français, le livre retrace les origines familiales de l'écrivain souletine d'origine né à Paris en 1932. Ses liens avec l'euskera, l'œuvre littéraire et l'oeuvre de recherche, son militantisme politique et culturel, outre l'indice de ses activités. Vingt-cinq photographies illustrent le livre qui contient la bibliographie complète de Peillen. (Voir vidéo interview dans *Euskonews* nº 533).

## Euskonews

### Euskonews Gaztea

Euskonews Gaztea astekariaren 158. zenbakian, besteak beste, Hezkuntza Ministerioak nota onengatik saritutako Jone Mitxelena biokimikariari egindako elkarrizketa argitaratu da. Bizkaitarra, egun, minbizia ardatz duen tesia egiten ari da laborategi batean. Leioako EHUko Zientzia eta Teknologia fakultatean Biokimika bukatu ondoren, amaitzean jaso zuen Unibertsitateko Errendimendu Akademikoko bikaintasunaren lehenengo saria. Elkarrizketa osorik helbide honetan irakurri daiteke:

http://gaztea.euskonews.com/0534zbk/elkar534.html



## Agenda

### Ekaina / Junio / Juin

5: Baiona.
Homenaje a Nestor Basterretxea



9: Stanford.
Fin del "Eusko Ikaskuntza Visiting Profesor of Basque Culture": Bernardo Atxaga

17: Gasteiz.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra
*Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



### Uztaila / Julio / Juillet

7-9: Plentzia.
III Jornadas de Historia Local: 1800-1900



12: Donostia.
Curso de Verano sobre *Sistemas de Evaluación de la Investigación en Ciencias Sociales y Humanidades*

12: Gasteiz.
Recepción en Ajuria Enea al Comité Ejecutivo



14: Donostia.
Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

### Iraila / Septiembre / Septembre

6-7: Donostia.
Udako Ikastaroa: Eskualdea, europar batasuneko "kide" berriaren inguruabarrak



16: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

### Urria / Octubre / Octobre

7-8: Bidart/Donostia. XVIèmes Journées de Projectique

14: Bilbao.
Batzorde Eragilea eta Batzorde Iraunkorra / *Comité Ejecutivo y Junta Permanente*



### Azaroa / Noviembre / Novembre

4-6: Iruñea/Zugarramurdi. *Akelarre: la historia de la brujería en el Pirineo (siglos XIV-XVIII). Jornadas en Homenaje al Dr. Gustav Henningsen*

18: Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

23-25: Bilbao. III Jornadas de Lingüística Vasco-románica

www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00-15:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 8:30-14:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 8:00-15:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedia Fundazioa eta Diario de Noticias (José Ramón Gómez)

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Fotokonposaketa: Ipar S.L.
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA